



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abuztuaren 23koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Zerbitzuen Sailari gomendatzen zaio eraginik gabe utz ditzala Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren etetea eta forma akats larriengatik behar ez bezala eskuratutako kopuruak itzuli beharragatik sortutako zorra.

Aurrekariak

1. Kexagileak Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarri bat (EPO) jasotzen du. Prestazio hori 2010eko azaroaren 25eko ebazpenaren bidez eten zitzaion, eskatu zitzaionean alokairu ordainagiriak ez aurkezteagatik. Etetea atzera eraman zen urtarrilaren 1era, eta ondorioz behar ez zirela kobratutako zenbatekoengatik 3.200 euroko zorra sortu zen.
2. Kexagilearen kexaren arrazoia da Arabako Foru Aldundiak ez ziola jakinarazi alokairu ordainagiriak San Antonio kaleko 10.eko Gizarte Prestazioei buruzko Informazio eta Izapidetze Udal Bulegoan aurkeztu behar zirela. Prestazioaren emate-ebazpena jakinarazteko idazkian adierazitako jarraibideei jarraituz (eta Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren 2/2010 Dekretuko 19.1 artikulua xedatzen duenaren arabera), bere oinarrizko gizarte zerbitzura jo zuen aipatu agiriak ematera. Bertan jakinarazi zitzaion izapidetzeko moduaren aldaketa bat zela-eta, ordainagiri horiek beste leku batean eman behar zirela eta garaiz jakinaraziko zitzaiola.

Baina, hori egin beharrean, azaroaren 15ean idazki bat bidali zioten. Bertan entzuteko izapiderako dei egin zioten, eta adierazi zioten etxebizitzaren ordainagiriak ez zituela ezarritako epeen barruan eman. Eskatutako agiriak emanez izapide horri erantzun ondoren, azaroaren 25eko ebazpen-idazkia jaso zuen; han jakinarazi zitzaion prestazioa eten ziotela eta 3.200 euroko zorra sortu zuela.

Geroko ebazpen batean, abenduaren 10ekoan, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) gisa jaso behar zuen zenbatekoan aldaketa bat egin zela adierazi zioten, eta artean 3.116,08 euroko zorra zuela; ez zioten aipatu, ordea, zor horren sorburua.

3. Horri buruzko argibideak eskatu ondoren, Arabako Foru Aldundiak honakoa jakinarazi zigun Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta aldatzeko ebazpenean agertzen den zenbatekoaren jatorriaz:

"...se trata de la misma deuda, pero cada vez que se envía una comunicación a la persona interesada, se le actualiza su deuda teniendo en cuenta los pagos o compensaciones ya efectuadas, para que tenga constancia de la misma.



- Los 3.200€ de la deuda inicial, corresponden a 10 mensualidades, de enero a octubre de 2010, de la cuantía correspondiente a los 320€ de Prestación Complementaria de Vivienda, tal y como se le comunica en la resolución de 25 de noviembre de 2010.

- El 10 de diciembre se genera una nueva deuda proveniente de la modificación de la RGI que se realiza, ya que el decreto 147/2010, de 25 de mayo, de la Renta de Garantía de Ingresos, en su artículo 17, indica que a partir de su entrada en vigor el uno de junio del mismo, se contabilizan la totalidad de los ingresos, en este caso por su trabajo por cuenta ajena. Hasta entonces, se había contabilizado el 98% de los mismos de acuerdo a la legislación vigente en ese momento.

Dicha deuda suma un total de 75,64€ (correspondiente a 5 meses), que sumados a la deuda inicial hacen un total de 3.275,64€.

La fecha de notificación de la 2ª deuda con una cuantía de 3.116,08€, es del 10 de diciembre y para esa fecha (la reclamante) ya había pagado: $145,37 + 14,19 = 159,56€$.

Siendo por tanto su deuda en ese momento: $3.275,64€ - 159,56€ = 3.116,08€$.

4. Bestalde, Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren 2/2010 Dekretuko IV. kapituluko xedapenak betez, behar ez bezala jasotakoak kobratzeko espediente berririk zabaldu al zen galdetu genion aldundiari, baina ez genuen erantzunik jaso.

Gogoetak

1. Kexagileak emandako agirien arabera, EPOaren emate-ebazpenean zehazten da ordainagiriak oinarrizko gizarte zerbitzuan eman beharko direla. Horrela egiten zuen lehenago GLL batengatik ordaintzen zizkieten alokairu gastuak justifikatzeko, 2/2010 Dekretua indarrean sartu aurretik. Ordainagiriak eman behar hori Dekretuko 19.1 artikulua xedatzen du: "Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke".

Alokairuen ordainagiriak San Antonio kaleko bulegoan eman behar zirela ez zen behar bezala jakinarazi eta, hala ere, Arabako Foru Aldundiak erabaki du kexagileak eteteko arrazoi bat bete duela (Dekretuko 24.1.a artikulua), ordainagiriak bai EPO emateko ebazpenean bai araudian bertan ezarritako xedapenen arabera aurkeztu arren. Hots, ordainagiriak oinarrizko gizarte



zerbitzuan behar bezala aurkeztu arren, haiek ez ziren onartu, esan baitzitzaion beste leku batean eman beharko zirela, eta leku hura garaiz kanpo jakinarazi zitzaion, prestazioa eteteko prozedura hasi eta gero. Horrez gain, entzuteko izapide baterako dei egin zioten, baina izapide hartako alegazioek (eskatutako ordainagiriak ematea) ez zeukaten inolako eraginik alegazioak egiteko epea zabaldu zela jakinarazteko idazkia baino 10 egun geroago eman zen ebazpen hartan. Izan ere, jakinarazpenean adierazten denez, alegazioak egiteko hamar eguneko epea zabalduko zen, idazkia jasotzen zen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita; beraz, entzuteko izapiderako jarri zen epea bukatu baino lehenago eman zen ebazpen hura.

Garrantzitsua iruditzen zaigu honako hau ere adieraztea: entzuteko izapiderako deia egiteko idazkian ordainagiriak *“ezarritako epeen barruan”* eman behar zirela aipatu arren, ez da adierazi zeintzuk diren epe horiek, ez gizarteratzeko hitzarmenean bertan, ez araudian bertan ere (bakar-bakarrrik aipatzen da sei hilabetean behin etxebizitzako gastuak justifikatu beharra dagoela –2/2010 Dekretua, 19.1 artikulua–: *“Emate-ebazpenari dagokionez, Etxebizitzako Gastuetarako Prestazio Osagarriaren titularrak sei hilean behin ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuen frogagiriak udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuari aurkeztu beharra ezarriko da. Frogagiri horiek ordainagiri pribatuak, fakturak, edo banku-ordainketako frogagiriak izan daitezke. Sei hilean behingo aldizkakotasun hori egoki jotzen den bezainbeste laburtu ahalko da mugikortasun handia ikusten den kasuetan, eskatzailearen ohiko bizileku-aldaketekin”*. Egiaz, erakunde honek gai horren gainean galdetu zuenean, Arabako Foru Aldundiak haxe erantzun zuen, hitzez hitz: *“la obligación de presentar los justificantes de los gastos de alquiler de la vivienda o alojamiento habitual, se circunscribe incluso previamente, a través del programa de ayudas de emergencia social; aspecto por el que esta persona es perfectamente conocedora del procedimiento establecido con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz; ya que precisamente la disposición transitoria a la que se hace alusión, establece este procedimiento en aras a la continuidad de la percepción de la Prestación Complementaria de Vivienda, por parte de las personas ya receptoras anteriormente de Ayudas de Emergencia Social por el mismo concepto”*. Hain zuzen, orain arte larrialdietarako gizarte-laguntzekin jardun duen moduan jarduteak sortarazi dio kaltea kexagileari, izan ere, izapide batzuk oinarrizko gizarte zerbitzuan egin zituen –ordurako ez ziren han egin behar–, ez baitzioten jakinarazi ordainagiriak aurkezteko modu berria jarri zutela, San Antonio kalean aurkeztu behar zirela. Horregatik, aldundiaren iritiz, ez da bete 2/2010 Dekretuaren 19.1 artikuluan ezarritakoa.

Beraz, gure ustez, ordainagiriak emateko izapideak non egin behar ziren jakinarazi ez zenez gero, eta ebazpena alegazioak egiteko epea bukatu baino lehen eman zenez gero, 30/1992 Legearen 62.1.e artikulua aplikatu beharko litzateke: *“Erabat deusezak izango dira herri-administrazioen egintzak baldin eta (...) Legez ezarritako prozedura erabat alde batera utziz edo kide anitzeko organoek erabakiak hartzeko funtsezko arauak guztiz bazterturik eman badira”*.



2. Bestalde, 2/2010 Dekretuaren IV. kapituluko xedapenak betez, behar ez bezala kobratutakoengatik espediente berri bat hasteko egin ziren izapideei buruzko informazioa eskatu genuen, baina ez genuen erantzunik jaso. Hortaz, ez zen inolaz ere aipatu behar ez bezala jasotako kopuruak kobratzeko prozedura. Gainera, EPO eteteak sortutako zorra DBE aldatzeak sortutako zorrari gehitu zitzaion, eta zenbateko berria DBE aldatzeko ebazpen-idazkian jakinarazi zitzaion, inolako banakatzerik egin gabe. Horregatik, ezkutuan geratu ziren zorraren zenbateko osoa sortu zuten arrazoiak.

Beraz, erakunde honen ustez, horri ere 30/92 Legeko 62.1.e artikulua aplikatu behar litzaioke.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

38/2011 GOMENDIOA, abuztuaren 23koa, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari egina

Etxebizitzako gastuetarako Prestazio Osagarriaren etetea baliorik gabe utz dezala eta, ondorioz, etenda egon den bitartean jaso ez duen zenbatekoa kobratzeko eskubidea onar diezaiola.

Behar ez bezala jasotako zenbatekoak kobratzeak sortutako zorra baliorik gabe utz dezala eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentagatik jasotzen duen zenbatekotik kenduz ordainarazi zaion zenbatekoa itzul diezaiola.

